

Ikusleen parte-hartze berezia lortu nahi du Zirika Zirkus taldeak zirku tailerraren bidez. Egun hauetan, zirku teknikak ikasteko aukera du ikusleak, Nafarroako zirku jaialdiaren barruan. Gaur egingo dute azken saioa, Altsasun.

Testua **Larraitx Amadoz**

**A**krobazia, akroporteak eta eskujokoak. Oreaken eta malgutasunaren artean nagusia da Zirika Zirkus taldea. Ibilbide luzeko taldea da. Duela zortzi urte eman zituen lehen pausoak. Txantrea auzoan egiten zuten lehen ikuskizuna taldekideek, hain zuzen ere, eta, orduz geroztik, Euskal Herriko makina bat herritan egon da.

Iruñean, antzerki ikastaroetan hasi zen Ainhoa Juaniz, Zirika Zirkuseko partaidea, eta bertan piztu zitzaion zirku mundua ezagutzeko grina. Horren ondoren, Madrilan egon zen zirku



# Ikusleak, zir



teknikak ikasten. Iruñera itzuli zenean, Zirika Zirkus taldea sortu zuen. «Zirku teknika eta antzezlanaren arteko nahasketa gustatzen zait gehien», azaldu du.

Zirika Zirkuseko taldekideak ekitaldi berezia egiten ari dira azken aldian. Ikusleak bilakatzen dira ikuskizuneko protagonista; izan ere, agertoki gainean egiten dituzten zirku teknikak irakastea da ekin-tzaren helburua.

Normalean, zirku teknikak eta antzezlanaren batzen dituzte ikuskizunetako emanaldietan.

Nafarroako be-deratzigarren zirku jaialdia egiten ari dira egun hauetan. Hala, ikuskizunak alde batera utzi dituzte Zirika Zirkus taldeko kideek une batez, zirku irakasle bihurtzeko. Jaialdiaren barruan, gaur egingo dute azken tailerra, Altsasun, 17:30ean.

Luis Lainez, Ainhoa Juaniz eta Maribel Martinezek klase bereziak ematen dituzte. Zirku tailerrera biltzen diren guztiei akrobaziak eta akroporteak nola egiten diren ikasten laguntzen diete. Zirku tailerra egiten duten bakoitzean, begiraleak izaten dituzte, emanaldian egiten den guztia kontrolpean egon dadin.

Umeei zirku teknikak irakasteko orduan material ugari erabiltzen dute Zirika Zirkuseko kideek. Oro har, oreka eta malgutasuna lantzeko tresnak erabiltzen dituzte tailerretan. Oreak kablea, orekari eusteko pelotoia, trapezioa, zirku jostailuak eta lastairak dira, besteak beste, baliatzen dituzten tresnak.

## Irakaspen pertsonalizatua

Zirkua irakasteko orduan, metodologja pertsonalizatua erabiltzen saiatzen dira. Ikusleak, umeak batez ere, gerturatzen diren heinean, ilaratan jartzen dituzte, banaka zirku teknikak irakasteko. «Umeei pixka bat itxoitea nahiago dugu, erakutsitako teknikak ongi barneratu ditzaten», dio Juanizek.

Beste zirku taldeetan antolatze-ko modu ezberdinak erabiltzen di-

# kuko protagonista



## Zirkuko teknikak.

Zirku tailerretara biltzen diren guztiei akrobaziak eta akroporreak nola egiten diren ikasten laguntzen diete Zirika Zirkus taldeko lagunek. Askotariko materiala erabiltzen dute zirku tailerretan.

ARGAZKIAK: INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

tuzte, eta Zirika Zirkusaren kasuan, banakako pertsonaren aldeko apostua egiten dute. Tailerra, jolasa baino zerbait gehiago dela azaldu du Juanizek, eta, horregatik, pertsona bakoitzarekin denbora pixka bat egotea gustatzen zaiela dio.

«Asko gustatzen zaigu zirkuaren erakustea, eta primeran pasatzen dugu umeekin jolasten dugunean», adierazi du Juanizek. Umeekin jolasterako orduan, lehiakortasuna saihesten saiatzen dira, eta, aldi berean, jolas horien barruan laguntasuna, elkarkidetzeta eta antzeko balioak helarazten saiatzen dira. «Gurekin zirku teknikak ikasten egon diren umeek etxera zerbait eramatea gustatzen zaigu, ez dadila jolas simple bat izan», adierazi du Juanizek.

Eremu zabala behar izaten dute zirku tailerra egiteko, leku handia behar baitute tresnek. Gainera, arrakasta handia izaten ari dira tailerrekin herrietara egindako bisitetan. «Jende mordo eta etortzen da zirku teknikak ikastera, zerbait ezberdina egiten dugulako», jakinarazi du Juanizek. Azken finean, tailer horietan ikuslea da protagonista; parte hartzen dutenen artean dago ikuskizunaren funtsa.

